

## ELKARGO EKINekin ihesgela (scaperoom): EUSKAL ALIEN NAZIOA

Ihesgela hau, "Euskal Alien Nazioa", Euskararen Etxean dago, San Inazio-Bilbon. Misterioz betetako jolas dibertigarri batean murgilduko gara eta ondo baino hobeto pasatzeko aukera izango dugu. Ordubete irauten duen jolasa da eta guztiz doakoa.

- ❖ NOIZ? Aukera izango dugu azaroaren 10ean, ostirala, edo 11n, larunbata, egiteko. Esaiguzu noiz datorkizun ondo!
- ❖ NON? Euskararen Etxean, ELE aretoan. Agoitz plaza 1 48015 Bilbo, Bizkaia. Metroz: San Inazio geltokian Lekeitio irteeratik aterata.
- ❖ ORDUA: 17:30ean hasten da, baina 10 minutu lehenago etortzea komeni da.

\* Nahi izanez gero, familiarekin etor zaitezke. 15 urtetik gorakoentzat bakarrik.

Izena emateko, formulario hau bete:

<https://forms.gle/h6k5boC62uNZQSHb8>

Erronkari heltzeko eta primeran pasatzeko prest?

## EUSKARA IKASTAROAK HASI BERRI DIRA

Urrian Elkargoekin Euskaraz ikastaroei hasiera eman diegu. Aurreko ikasturtean, ekainean, 35 ikaslek amaitu zuten: A1ean 2 ikasle, A2an 7, B1ean 8, B2an 5 eta C1ean 13 ikasle.

Irailean deialdi berria egin zen eta gure sorpresarako jende askok eman du izena oraingo ikasturtean. Guztira 71 partaide ditugu, hau da, aurreko ikasturtearen bikoitza.

Horietatik, aurrekoaren antzera, 7 elkargoetako langileak dira eta gainerakoak, 64, elkargokideak.

Ikastaro hauek AEKren laguntzarekin ematen dira eta zati bat online egiten da (ariketak) eta gero astero mintza saio bat eta hamabostean behin tutorearekin zalantzak argitzeko eskola 1 ematen dira.



## Scaperoom con ELKARGO EKIN: EUSKAL ALIEN NAZIOA

Esta scaperoom se encuentra en la Euskararen Etxea de San Inazio, en Bilbao. Nos adentraremos en un divertido juego lleno de misterio y tendremos una oportunidad de pasarlo muy bien. Es un juego que dura una hora y es totalmente gratuito.

- ❖ ¿CUÁNDO? Tendremos la oportunidad de hacerlo el viernes 10 o el sábado 11 de noviembre. ¡Dinos cuándo te viene bien!
- ❖ ¿DÓNDE? En la Euskararen Etxea, en la sala ELE. Plaza Aoz 1 48015 Bilbo, Bizkaia. Metro: Salida de Lekeitio en la estación de San Inazio.
- ❖ HORA: Comienza a las 17:30, pero conviene venir 10 minutos antes.

\* Si quieres, puedes venir con la familia. Sólo para mayores de 15 años.

Para inscribirse rellenar este formulario:

¿Preparado/a para abordar el reto y pasarlo bien?

## ACABAN DE EMPEZAR LOS CURSOS DE EUSKERA

En octubre hemos dado comienzo a los cursos de Elkargoekin Euskaraz. El curso pasado, en junio, finalizaron 35 alumnos y alumnas: en A1: 2, en A2: 7, en B1: 8, en B2: 5 y en C1: 13.

En septiembre se hizo una nueva convocatoria y para nuestra sorpresa han aumentado los colegiados y colegiadas inscritas en el curso actual. En total contamos con 71 participantes, lo que supone el doble que el curso pasado.

De esa cifra, 7 son personas trabajadoras de los colegios profesionales y el resto, 64 colegiados/as.

Estos cursos se imparten con la colaboración de AEK y una parte se realiza online (ejercicios) y luego se imparte una sesión semanal de mintzapraktika (habla activa) y, quincenalmente, una tutoría con el tutor/a para resolver dudas.